

ASTEKARIA: 14. atala

DATA: 2024/09/27

GUREAN

GUK ERE BAT ZINEMALDIAREKIN!

Pedro Almodóvar, Cate Blanchet, Tim Burton, Monica Bellucci, Javier Bardem, Pamela Anderson, Johnny Depp... Aktore handi hauek ez dute Zinemaldia galdu nahi izan aurten, eta guk ere ez.

72. edizio honetan ere etxeko txikiei keinu bat egin diete. Donostiako Belodromoan proiektzio bereziak prestatu dituzte. Filmak 400 metro koadroko pantaila batean proiektatzen dira, ia 3.000 ikus-entzulerentzat prestatutako aretoan.

Gure LHko ikasleek Danimarkako "Alan Giza Antena" pelikulaz disfrutatu dute izugarri aste honetan. Pantaila handiaren aurrean egoteko gogoia piztu zaie Belodromoan sartu bezain pronto. Gora zinea!



GURE INGURUAN

GASTEIZKO ERDI AROKO AZOKA

NOIZ: IRAILAK 27TIK 29RA ARTE



Gasteizen izaten den eskaintza kultural jendetsuenetariko bat da Erdi Aroko azoka. Erdi Aroko hiriguneko kaleak eta plazak eraldatzen dira.

Errementariak, arotzak, urreginak, beiragileak eta abar Erdi Aroko hirigunera itzultzen dira, garai hartako eskulangileen jakinduriak gozatu ahal izan dezagun. Malabaristek, juglareek, saltokariak eta beste ikuskizun batzuek azokaren bizitza gogorarazten dute eta, antzina bezala, kultura kristaua, arabiarra eta judua bizikide izaten dira.

KOSTALDEA IKERTZEN: ALABORTZA

NON:PASAIA

NOIZ: IRAILAK 29, 10:00ETAN

Ekoaktibitate honen helburu nagusia gure kostaldearen egoera modu integralean ezagutzea da, kostaldeko biodibertsitatea arakatzuz, itsasoko uraren egoera ikertuz ikerlari bihurtuz, eta, azkenik, gure itsasertza babestuz, itsas hondakinak bilduz eta gizakiak ingurunean duen eragina gutxituz. Ekoaktibatu eta zaindu ingurunea!

